



FEDERACION VIZCAINA DE MONTAÑA
BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOA
MARTIN BARUA PICAZA nº 27, 4ª PTA 48003 BILBAO
Tfno.: 94 443 17 34 Fax: 94 444 35 62
www.bmf-fvm.org
<https://www.facebook.com/pages/Bmf-Fvm/597553177057267>

AKTA

BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOKO EZ OHIZKO BATZARRA ASAMBLEA EXTRAORDINARIA DE BMF

Bilbon, 2019ko azaroaren 26an, 21: 15 direnean, BMFren Ez Ohiko Batzar Orokorra eratu da. Batzordeko presidentea Victor Manuel Vivar da, eta idazkaria Ainara Aparicio, BMFko kidea. Zuzendaritza Batzordeko kideak ere bertan dira: Ricardo Hernani, Dioni Perez eta Zigor Egia.

BERTARATUTAKOAK:

AKREDITAZIO EDO ORDEZKARITZA ZUZENA DUTEN KLUBAK:

Gallarreta, Deustuko Menditarrak, Aldatz Gora, Arroletza, Gallarraga, Ganguren M.T, Ganzabal M.T, Goiko Mendi, Larrañeta M.E, Alpino Tabira M.T, Turista Barakaldo, Etorkezuna M.T, Encartaciones, Goi Gain M.T, Deportivo Bilbao, Gailurra M.T, Munarrikolanda, Cicloturistas de Euskadi C. La Rioja, Itxartu Taldea.

BMFREN HAUTESKUNDE BATZORDEAK ESKATUTAKO LEGEGINTZALDI HONETARAKO ORDEZKARITZA OROKORRA AURKEZTU EZ DUTEN BAINA BATZAR HONETARAKO UNEAN UNEKO ORDEZKARIAK IZAN DITUZTEN KLUBAK:

KIROLARIAK:

Ricardo Hernani, Víctor Manuel Vivar, Ainara Aparicio, Txaro Iglesias, Joseba Undurraga y Domingo García.

TEKNIKARIAK:

--

Victorrek, BMFko presidentea den aldetik, ongietorria eman die bertaratutakoei. Idazkariak Batzarrera joandakoen zenbaketaren berri eman du, honela: 19 klubek dute botoa emateko eskubidea (46 boto), kirolarien 6 ordezkari (6 boto) eta teknikarien 0 ordezkari (0 boto). Guztira, 25 kide bertaratu dira, eta 52 boto.

BATZARRAREN ERAKETA:

Aurreko datuak ikusita, lehendakariak Batzarra baliozkotzat jo du, Federazioaren Estatutueta 20. Artikuluak jasotakoaren harira.



FEDERACION VIZCAINA DE MONTAÑA
BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOA
MARTIN BARUA PICAZA nº 27, 4ª PTA 48003 BILBAO
Tfno.: 94 443 17 34 Fax: 94 444 35 62
www.bmf-fvm.org
<https://www.facebook.com/pages/Bmf-Fvm/597553177057267>

Idazkariak jakinarazi du Bizkaiko Mendizale Federazioaren presidenteak deitu duela Ezohiko Batzar hau, BMFren estatutueta 18. artikuluan jasotako epeen barruan, deialdiko gai-zerrendan jasotako helburuarekin, hau da, federazioaren diziplinetan Martxa Nordikoa sartzeko helburuarekin.

Presidenteak gogorarazi du, BMFren azken batzarretan erabilitako eskema berari jarraituz, ordezkari ofizialen laguntzaile gisa etorri diren pertsoneri (bat klubeko) bilerara sartzeko utzi zaiela, nahiz eta horiek ez duten botoa emateko eskubiderik. Botoa emateko eskubiderik ez duten zuzendaritzako kideak ere bertan dira: Dioni Perez eta Zigor Egia.

Gai desberdinak sartzeko eskaerarik jaso ez denez, BMFren estatutueta 19. artikuluan jasotakoaren arabera, deialdiko gai-zerrendan jasotakoei bide eman zaie.

GAI-ZERRENDAKO LEHEN PUNTUA: MARTXA NORDIKOA ESTATUTUETAN DIZIPLINA GISA SARTZEA.

Idazkariak jakinarazi du estatutuen 9. artikuluan mendizaletasunak barne hartzen dituen modalitateak sartzeko direla, eta horiei martxa nordikoa gehitu beharko litzaiekela, 13.a bezala, Eusko Jaurlaritzak martxa nordikoa mendiko modalitate gisa onartu eta Euskal Mendizale Federazioak bere estatutueta sartu ondoren. Martxa nordikoa estatutuen 9. puntuan sartzeko botoa eman da. Aho batez onartu da Martxa Nordikoa BMFren estatutueta 9. puntuan sartzea.

BIGARREN PUNTUA: ESKAERAK ETA GALDERAK.

Bertaratutakoei galdetu zaie ea galderarik edo iradokizunik egin nahi duten. Galderarik ez dagoenez, idazkariak batzarra amaitutzat eman du, bertaratutako guztiei eskerrak emanez.

Stua.: Ainaro Aparicio
BMF Idazkaria

Stua.: Víctor Vivar
BMF Presidente

